

2019/09/23

A212. KIROL JARDUEREN KUDEAKETA

BIGARREN ARIKETA

*Denbora, gehenez: 100 minutu.
Zuzeneko gehieneko puntuazioa: 60 puntu
Probaren gehieneko puntuazioa: 30 puntu*

Ez ireki galdera-orriak esan arte, eta irakur itzazu arretaz orri honetako jarraibideak.

- **Mugikorrak itzalita** eduki behar dira, eta mahaitik kanpo, baita erlojuak, jarduera-eskumuturrekoak eta antzekoak ere. Ur botilak, estutxeak eta antzekoak eskura eduki daitezke, baina ez mahaiaren gainean.
- Aretoan erlojurik ez badago, ahoz jakinaraziko da zenbat denbora falta den proba bukatzeko: 60, 30, 15, 10 eta 5 minutu geratzen direnean, eta azken minutuan.
- Mahaiaren gainean hauek besterik ezin izango dira eduki: galdera-orriak, identifikazio-orria, NANA eta boligrafoa (urdina edo beltza). Ezin da erabili kolorezko errotuladorerik; bai, ordea, TIPEX® edo antzekorik.
- Epaimahaiak **irakurtzeko moduko idazkera** erabili behar da ariketan.
- GAKOA duen **identifikazio-orria** eman badizute, jar itzazu datu hauek: NAN zenbakia, izena, abizenak eta probaren kodea/izena.
- **Idatz ezazu GAKOA** erabiltzen dituzun **erantzun-orrietan**. EZ ezazu idatzi izenik edo NAN zenbakirik orrian, ezta sinatu ere, EZ ZUZENTZEKO arrazoia baita. Orriaren bi aldeak erabili. Orriei jarri zenbakiak, ez orrialdeei.
- Identifikazio-orria probaren lehen minutuak igaro ondoren jasoko da.
- **Bertaratze-ziurtagiria** nahi baduzu, eska ezazu presentzia-kontrola egiten den unean.
- Erantzun labur eta zehatzak eman behar dira. Aldez aurretik zehaztuta daude zuzenketa-irizpideak. Galdera bakoitzaren gehieneko balorazioa enuntziatuan bertan adierazten da.
- Denbora agortu aurretik bukatzen baduzu, altxa eskua erantzun-orriak har diezazkizuten. Ez da azterketarik jasoko, banaka, azken 3 minutuetan. Bukatu baduzu, geratu zure lekuan, isilik, denak batera bildu arte.
- Ez ahaztu erantzun-orri guztietan adieraztea:
 - **LEP kodea (A212)**
 - **Identifikazio-gakoa**
 - **Zein kasuri erantzuten diozun (kasu bakoitza orri bereizian hasi behar da)**
 - **Orri-zenbakia / erabilitako orriak, guztira**
- Ez ezazu gainditu kasu praktiko bakoitzeko **ORRIALDE ERDIKO gehieneko muga**. Hori gainditzen duten erantzunak EZ DIRA ZUZENDUKO.

Eskerrik asko zure laguntzagatik

* Gogoan izan: **ORRIALDE ERDIKO gehieneko muga**, kasu praktiko bakoitzeko. Hori gainditzen duten erantzunak EZ DIRA ZUZENDUKO. *

Kasu praktikoa: 1

10 puntu

Gizartea Parekatuz elkarteak eskutitz bat bidali dio Gasteizko Udaleko Kiroleko zinegotziari.

Idazkian adierazten dute desgaitasun intelektuala duten pertsonen kolektiboen beharrei erantzuteko sortu dela elkarte, eta Kirol Zerbitzuko teknikariekin bilera bat egitea eskatzen dute, beren proiektu soziala eta kirolaren inguruko azaltzeko, hots, elkarte sortzearen arrazoia, eta beren bazkideek dituzten eskubideen berri jasotzeko, eta orobat beste kirol praktika batzuen berri.

Hau eskatzen zaizu: Gizartea Partekatuz elkarteari idazkian planteatutako kontuen inguruko aholkularitza eta informazioa eskaintzeko bilera presta dezazula.

Eskema:

- ✓ Identifikatu eta deskribatu entitatearen tipologia.
- ✓ Identifikatu eta azaldu horrelako kolektiboentzako Udalaren egungo kirol jarduera.
- ✓ Identifika ezazu, eta azaldu, Udalaren dirulaguntza-deialdian horrelako entitateentzat dagoen berariazko atala.

Kasu praktikoa: 2

10 puntu

Kanpoko kirol instalazio bat ireki eta kontrolatzeko kontratatutako enpresa bateko langileak gorabehera baten partea idatzi du, eta bertan jakinarazten du hainbat pertsona kirol espaziora —errugbi-zelaira— sartu direla, beraren ustez kriketaren antza duen kirol modalitate bat jokatzeko ari direla, eta ez jarduera ez entitatea ez daudela identifikatuta errugbi-zelaiari dagokion asteko koadrantean. Gorabeheraren partea bukatzeko, egoera berriro suertatuz nola jokatu beharko lukeen galdetzen du.

Errugbi-zelaiko kirol jardueraren kudeaketaren arduraduna zaren aldetik, alde batetik azter ezazu kriketa kirol jarduera gisa, eta duen elkarte-garapena, eta, bestetik, defini itzazu burutu beharreko ekintzak, kanpoko instalazioan lan egiten duen langileak behar den moduan esku har dezan.

Hau eskatzen zaizu:

- ✓ Kirol eta asoziazio-analisisa
- ✓ Ekintzak definitzea

Kasu praktikoa: 3

10 puntu

Igerileku estaliak edo estali gabeak dituzten 12 instalazio ditu Gasteizko Udalak gaur egun.

Horiek ireki ahal izateko, baldintza tekniko orriak lantzen ditu aldian-aldian Kirol Zerbitzuak. Justifikatu eta defini ezazu kontratuaren xedea, Udalaren kirol instalazioetako sorospen-zerbitzua zehazten duena.

Hau eskatzen zaizu:

- ✓ Justifikazioa
- ✓ Xedea

Kasu praktikoa: 4

10 puntu

Salburua auzoko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko berriko guraso-elkartearen arduradunak aholkularitza eskatu dio Gasteizko Udalari, kirol jardueren programa bat definitzeko, 2020-21 ikasturterako.

Kirolaren arloko prestakuntzarik ez duen pertsona horri aholkularitza teknikoa eskaini ahal izateko, dokumentu erraz bat prestatzea erabaki duzu, gida modura baliatu ahal izango duzuna, eskola-kirolaren oinarrizko hiru alderdiak azaltzeko: justifikazioa, kirol jarduerak identifikatzea (ibilbideekiko erreferentziekin) eta Udalaren kirol espazioak.

Hau eskatzen zaizu:

- ✓ Justifikazioa
- ✓ Kirol jarduerak. Haur Hezkuntza
- ✓ Kirol jarduerak. Lehen Hezkuntza
- ✓ Udalaren kirol instalazioak

Kasu praktikoa: 5

10 puntu

Astelehenean, lanpostura iritsi orduko, asteburuan izandako bi gorabeheren txostenak eman dizkizute. Hona bi txostenen hitzez hitzezko kopiak:

- **1. txostena.** Larunbatean, 18:15ean, instalazioen ohiko kontrolean, pertsona bat identifikatu zen, kirol praktika egiten ari zela ariketa-aretoan, zerbitzu hori erabiltzeko ordaindu beharrekoa ordaindu gabe.
- **2. txostena.** Igande goizean, eskubaloi-partida bukatu ondoren, ohartu ginen 2. aldagelan bi paperontzi hautsita zeudela, eta lau esekitokiei eusten dien barra erauzita.

Udal instalazioak ahalik eta pertsona gehienek —elkarbizitza baketsuan eta araudia errespetatuz— erabil ditzatela arduratzen zaren teknikaria zaren aldetik, tipifika ezazu arau-haustea, eta zehaztu zigorra jartze aldera zein ekintza egin behar dituzun.

Hau eskatzen zaizu:

- **1. gorabehera:**
 - Tipifikatu.
 - Ekintzak.
- **1. gorabehera:**
 - Tipifikatu.
 - Ekintzak.

Kasu praktikoa: 6	10 puntu
--------------------------	-----------------

San Andres kiroldegiko gimnasioaren erabiltzaile batek eskatu du kirol espazio horren udal arduradun teknikoarekin harremanetan jartzea telefonoz, bere ezadostasuna agertzeko, kirol entitate bati asteko koadrantean emandako ordutegia dela eta.

Abiapuntutzat harturik kirol koordinatzaile gisa dituzun zereginak, udal egitura eta 8.4 ordenantza —Udalaren kirol-instalazioak erabiltzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoa— , azaldu iezazkiozu koadrantea egiteko —kirol jardueri eta erabiltzeko eskabideei orduak eta egunak esleitzeko— baliatzen diren irizpideak.

Pertsona horri deitu aurretik, egizu azalpen-lauki bat, hiru multzotan bereiziz jarduerak eta erabiltzeko eskabideak, eta lehentasun-hurrenkera ezarriz, koadrantea egite aldera (deskribatu itzazu multzo bakoitzeko hiru adibide).

Hau eskatzen zaizu multzo bakoitzeko:

- Identifikatzea.
- Definitzea.
- Hiru adibide.